



AZOKAREN ATARIAN, XEHETASUN GUZTIAK

Babarrunaren Astearen harira, lekalearen inguruko informazio interesgarria bildu du HITZAk >5-6-7-8

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza




**Ostirala
2008-11-21**

VIURTEA 1.565.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



V. Sentsibilizazio Astea aurkeztu zuten Gaintzen elkarteok, herenegun eginiko agerraldian. ESTI EZEIZA



Loatzo musika eskolako ikasleek kalejira egin zuten atzo. I. GARCIA

Zaindariaren omenez musika doinuak kalean zabaldu dituzte

TOLOSALDEA Gaur, bihar eta etzirako kalejirak eta kontzertuak antolatu dituzte musikariek 3

ENTZUTEN DUTENEN ETA GORREN ARTEKO HARREMANA SENDOTUZ

TOLOSA Gaintintzenek, Tolosaldeko eta Goierriko gorren elkarteak, V. Sentsibilizazio Astea antolatu du biharko, hainbat ekitaldirekin 4

Mendi asteak egingo dituzte datorren astean Asteasun eta Villabonan 9

AAMk jakitera eman duenez, Irati Mujikak torturak salatu ditu 11



Itzala sartzen duen gizonak

Emakume askoren barrua du iluntzen. Itzala die sartua, ilun bizi dira, ikaran. Ez dugu iluntasuna emakumearen azalean ikusten, eta horrek ezinbestekoa dakarke.

Orduan da tratu txarrak argitara ekartzeko ordua. Denok bat.

EGIN AURRE: HARTU AURREA TRATU TXARREI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Eskerrik asko

Eskerrik asko Anoetako alkate eta EAeko zinegotziei. EAJkoak alkatetzan egon ziren lau urteak niretzat eragozpenz beteak izan ziren. Udaletxera iristea da errazena, mantentzea zailena.

Herritarrei lagundu egin behar zaie, ez zanpatu. Bizi egin nahi duguez bixi.

Arantxa Otaegi Berasategi (Anoeta).

Manifestazioa Madrilen

Pasa den larunbatean Madrilen manifestazioa egin genuen Sahararen aldeko elkarteek eta bertan egon ginen Tolosaldea Sahararekin elkarteek kideak. Guztira 8.000 lagunek hartu genuen parte eta eskualdetik 14 lagun joan ginen. Maroko errudun eta Espainia arduradun bezalako oihauek izan genituen, besteak beste.

Tolosaldea Sahararekin.

Luberrri museora bisita

Pasa den ostiralean, azaroak 14, Oiarzaum Luberrri museora joan ginen Zizurkil-Villabonako Jesusen



Bihotza Ikastolako LH1eko ikasleak. Bertan, lurraren sorrera nola gertatu zen, gizakiaren eboluzioa... ikusi eta ikasi genituen.

Horretaz gain, dinosauroei buruzko gauza asko ikasi genituen eta ikusi ere, zenbait maketa, fosilak, aztarnak, meteorito zati bat ere ikusi genituen.

Primeran igaro genuen eta asko ikasi genuen.

Jesusen Bihotza ikastola.

Kirolegiko txerrikeriak

Gaur aldageletako eserleku zurietan, zirrinda marroi bat ikusi dut, jendea ipurdia garbitu gabe eseritzen denean geratzen dena. Baina zenbat holako gure Usabal maitean? Eta zer iruditzen zaizkizue igerilekuaren ondoan maiz ageri diren «pilotatxo» susmagarri hoiak, izan ile-mordoioloak edo kostoa-ren antzeko bolatxoak? Eta beste galderabat: makineta sartzen direnek, zergaitik egiten dute aurreneko gauza, paper puska bat hartzea rollotik, gehienek izerdi tantorik bota gabe saioa amaitzen duten arren? Misterious live in Usabal.

E. Mandiola.

Urtero bezala argiak piztuta

Azaroak 19an, asteazkenean, Tolosa Maxi Eroskira joan nintzen asteko erosketa egitera. Zein izan zen nere sorpresa ordurako dagoeneko kanpoan jartzen dituzten Eguberrietako argiak piztu dituztela. Oraindik hilabete baino gehiago geratzen da Eguberrietako eta, ondorioz, hilabete baino

gehiago egongo dira beharrezkoa ez den argi kontsumoarekin. Eguberrietan egiten den kontsumoa ere ez zait iruditzen beharrezkoa baina are gutxiago hilabete lehenago hastea.

Laister dira herriko kaleetakoak piztuta, ezta? Benetan, ikas dezagun beharrezkoak ez diren kontsumoak murrizten, guztion hobeto beharrrerako.

Edurne.

**B Blogteka****Zilarrezko Qak lortu ditugu**

Zorionak denori Euskalitek egindako kanpo ebaluaketan Zilarrezko Q errekonozimenduak jaso ditugulako. Hirukidekoaz gain Bilboko Jesuitinak eta Eskolapioek lehenengo saiakeran ere sarie lortu dugu.

Hirukide sortu zenetik seigarren ikasturtean murgilduta gaudela, orain arte egindako lana oparora izan da. Jasotzen arigaren errekonozimendu guztiak olatuaren gainean jartzen gaituzte baina hori egunerokoari esker

da. Horrela, aukera hau aprobetxatu nahigenuke eskerrik beroenak elkarriz emateko; Hirukide osatzen dugun guztiok (gurasoak, ikasleak, irakasleak, beste langileak, hiru kongregazio erlijiosoa, begiraleak eta entrenatzaileak, eta gurekin egunero lan egiten dutenak) oso pozik egon gaitzke lortutakoarengatik. Aurrerantzean ere Tolosaldean pertsonentzako, osotasunean, dugun proiektua gauzatzen segiko dugu.

Hau ere ospatu beharko dugu!
Hirukide ikastetxea
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

K Kirol jarduera**Bihar****Futbola**

■ Berazubini, 16:30ean Gazteen nazional maila Tolosa CF-Real Union.
■ Usabalgo futbol zelaian, infanti-lak, 09:30ean, Tolosa CF-Ordizia.
■ Usabalgo futbol zelaian, kadeten Lehen Maila, 11:00etan, Tolosa CF-Lazkao.

■ Usabalgo futbol zelaian, nesken kadeteak, 12:30ean, Tolosa CF-Aloña Mendi.
■ Usabalgo futbol zelaian, jubenilen Lehen Mailan, 15:30ean, Amarriz-Urnieta.

■ Usabalgo futbol zelaian, Jubenilen Ohorezko Maila, 17:30ean, Tolosa CF-Anaitasuna.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, infanti-lak, 10:30ean: neska, TAKE A-Ordizia; mutilak, TAKE B-BKL; mutilak, TAKE C-Goierri.

■ Usabalgo goiko kantuan, kadete neska 12:00etan, TAKE B-Sein.

■ Usabalgo goiko kantuan, junior maila 16:00etan, TAKE Orbelamondragon.

■ Usabalgo goiko kantuan, Nazional Mailan, 18:00etan, Bide Bide Ibiza-Baskonia.

Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantuan, junior mailan, 09:30ean Laskorain-Eskolapioak.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantuan, infanti-lak, 12:00etan, Tolosa-Egia.

Dardoak

■ Beotibarren Tolosa 2015 I. Dardoen Opena 16:00-01:00.

Etzi**Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantuan, kadeteak, 10:00etan, Tolosa-Bergara.

■ Usabalgo goiko kantuan seniorak, 12:00etan, Tolosa-Aloña Mendi.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldeko Lehen Mailan, 11:00etan, Tolosa CF-Eibartarrak.

Dardoak

■ Beotibarren Tolosa 2015 I. Dardoen Opena: 10:00-14:00.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Tolosa (Bellatokia)

Kultura » Musikariaren zaindariaren eguna dela eta, kalejirak eta kontzertuak antolatu dituzte eskualdean.

ERREDAKZIOA

Atzo lehen musika doinuak zabaldu ziren eskualdean eta etzi arte errepikatu egingo dira. Izan ere, biharkoan Zezilia Deunaren Eguna ospatuko dute musikariak. Hala, zaindariaren omenez kalejira eta kontzertuak antolatu dituzte.

Txikiak, gaur eta bihar

Atzokoan, esaterako, Loatzo musika eskolak Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak egindako deialdiarekin bat egin zuen. Elkarrekin *Musikalean* deituriko ekintza antolatu zuen eta atzo arratsaldean hainbat herritan egin zituzten kalejirak, elkarteak kamisetak soinean zituztela. Anoeta, Irura, Altzo, Ibarra, Alegia, Villabona eta Zizurkilaren aritu ziren kaleak alaitzen Loatzoko ikasleak.

Santa Zeziliaren inguruan beste emanaldi batzuk ere egingo dituzte.

Eskualdeko musikariak kalera aterako dira Zezilia Deunaren omenez

te. Gaur, esaterako, Adunako Kultur Astearen baitan, emanaldia izango da herri horretako elizan. Baina ekitaldi nagusia bihar izango da, Altzon. Bertan Loatzo musika eskolako ikasle guztiak elkartuko dira, 500 inguru. Haizezko eta perkusiozko instrumentuekin kalejira erraldoia egingo dute eta ondoren frontoian elkartuko dira. Han, batez ere sokako instrumentuekin osatutako orkestrak, Loatzoko abesbatzak lagundurik, kontzertua emango du.

Kontzertu berezia, etzi

Musika Bandak eta Eduardo Moco-roa musika eskolak ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaur, bihar eta etzi artean. Gaur, esaterako, kalejiran ibiliko dira Tolosako kaleetan. Bihar ere, eguraldiak laguntzen badu, berez Tolosan egongo den giro ona are eta atseginagoa izaten lagunduko dute.

Haatik, ekitaldi indartsuena etzi



Loatzokoek kalejira egin zuten atzo Irura eta Anoetan artean. I. GARCIA

egingo dute, Leidor aretoan; Santa Zezilia kontzertua, hain zuzen. Doakoa izango da eta Tolosako Udal Txistulari Bandak, Maiatz Akordeoi Orkestrak, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak eta Tolosako Musika Bandak hartuko dute parte bertan.

Santa Maria kaperaren emanaldia, bihar

Santa Maria kaperak ere bere omenaldia egin nahi izan dio Zeziliari eta biharkoan emanaldi berezia eskainiko du.

Hala, 19:00etatik aurrera Santa Maria elizan kaperako 90 partaideek (organo, orkestra eta korua) sei obra interpretatuko dituzte: *Kristo Gure Errege*, Eduardo Moco-roak San Juan Bautistaren ohorekin egindako meza *Kiry*, Santa Zeziliaren motetea, *Aita Gurea*, *Magnificat*, *Agur Jesusen Ama*.

Belarriekin gozatzeko aukera paregabea dago, beraz, egunotan.

» EGITARAUA

Gaur

■ **Loatzo musika eskola.** Adunako Kultur Astearen baitan, emanaldia elizan, 18:30ean.

■ **Eduardo Moco-roa musika eskola.** 20:00etan, Alde Zaharrean ariko dira kalejiran.

Bihar

■ **Loatzo musika eskola.** Altzon kalejira 11:00etan hasita udaletxetik frontoira. Ondoren, frontoian kontzertua.

■ **Tolosako Musika Banda.** 12:30ean kalejira Gorriti plazan eta Alde Zaharreko kaleetatik.

■ **Eduardo Moco-roa musika eskola.** 11:30ean: Bibolinak eta akordeoiak (eguraldiaren arabera).

■ **Santa Maria kaperak.** Santa Maria elizan, kontzertua 19:00etan.

Etzi

■ **Santa Zezilia kontzertua.**

12:00ean Leidor aretoan, Giroarte dultzaina taldea, Tolosako Udal Txistulari Banda, Maiatz Akordeoi Orkestra, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra eta Tolosako Musika Bandaren Santa Zezilia kontzertua, doan.

G Gutunak

Kapitalismoaren eta bere krisiaren aurka, alternatiba marxista

Kapitalismoaren eta bere krisiaren aurka, alternatiba marxista Azken urteetako hazkuntza ekonomikoan banku eta enpresa handiek ikaragarriko irabaziak izan dituzte. Hala ere, langileen baldintzek, nahiz eta hazkuntza ekonomikoan egon, okerrera egin dute. Eta orain, krisi ekonomikoarekin, kapitalistek langileen eta hauen familien gainera bota nahi dituzte ondorio guztiak: kaleraketak, soldata murrizketak, zerbitzu publikoen pribatizazioa, prekarietatea, langileen eskubideekin amaitzeko lan erreformak, pentsioen sistema publikoaren aurkako erasoak...

Munduko gobernu ezberdinek mota guztiak planak egin dituzte krisiari aurre egiteko. Baina orain arte hartutako neurri guztiak kolore berdinekoak dira: bilioika euro oparitu bankuei eta denon dirua kapitalisten irabaziaz mantentzeko erabili. Mundu osoan bezala Euskal Herrian ere hainbat lagunek hipoteka ezin ordainduak zer axola die Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari? Diru laguntzak hauei eta langabeziaren geratutako direnei eman beharrean, berriro ere aberatsenentzat joan dira.

Zapateroren Gobernuak 150.000 milioi eman dizkie Estatu Espainiarreko eta Hego Euskal Herriko bankuei. EAJren eta UPNren laguntza ezinhobearekin

PSOEk aurrera atera dituen aurrekontuekin konparatzen baditugu datu hauek, ikusiko dugu zenbaiterainoko diferentziarekin zain-tzen dituzten goiko eta beheko herri-tarrak. Estatu osoan, 2009 urte-rako, 19.000 milioi euro soilik onartu dituzte langabeziaren ase-gururako. Noski, Euskal Herrian langabeziaren geratutako diren mila-ka herritarrentzat ez da nahiko diru egongo, jada banku jabeen poltsikoetan baitago.

Zer egingo dute bankuek diru honekin? Burbuila espekulatiboarekin irabazi beldurgarriak lortu ondoren, diru laguntza hauek espekulatzaile handiekin dituzten konpromisoei aurre egiteko erabili-ko dituzte eta ez ekonomia ber-pizteko, komunikabide batzuk dioten bezala. Nondik aterako dituzte gobernuak diru laguntza hauek? Gizarte gastuak murriztuz, langileen zergak handituz eta langabezi sorospena murriztuz. Kapitalisten interesak defendatzeko neurri kapitalistak besterik ez dira bankuen aldeko laguntza hauek.

Krisi egoeratan, kapitalisten bihotza ez da bigintzen, izateko-tan alderantziz. Euren irabaziaz ezerean gainetik egon behar dute eta hurrengo hilabeteetan helburu hori aurrera eramateko langileen-tzak oso gogorrak izango diren neurriak hartuko dituzte: soldata-k murriztu, langileen esplotazioa in-tentsifikatu eta negozio mailaren arabera lan plantilak egokitu, hau da, langileak kalera bota. Kapitalistek, izoztu egingo dituzte euren inbertsioak etorkizun hobe ba-

terako, eta irabaziaz emango dizkieten sektoreetan espekulatzen jarraituko dute. Azkenaldian etxe-bizitzan espekulatzetik elikagaiekin espekulatzera pasa dira, hori izan delarik elikagaien prezioak igotzearen arrazoia nagusietako bat.

Eraso guzti hauei aurre egiteko sindikatuek lan asko egin beharko dute. Langileen, langabetuen, ne-gozio txikiak dituztenen, nekazari txikien, herritar xeheen... pazientzia amaitzen joango da. Irtenbide bakarra langileen borroka da. Ezin dugu onartu soldata murrizketarik, langile bakar baten kaleraketarik, prekarietatearen handitze-rik... borrokarik, mobilizaziorik edo grebarik antolatu gabe. Beharrezkoa da gainera fabrika bakoit-zeko gatatzeko beste fabriketara, herritara eta auzoetara zabaltzea. Langileen indarra batasunean dago. Langileak elkartzeko badira enpresariak jai dute.

Euskal Herria Sozialistak krisi ekonomikoaren aurkako eta langileen aldeko hitzaldiak antolatu ditu. Otsabigazte lokalean (Denak tabernaren ondoan dago), azaroaren 21 ostiralean, 19:30ean emango dugu. Gure helburua langileen batasuna bultzatzea da, langileak eta herritarrek gertatzen ari denaz in-formatzea eta langileen borroka, mobilizazioak eta grebak bultzatzea. Greba orokorraren beharra defendatzeko dugu, sozialismoaren alde borrokatzearen beharra, Gora langileria!

Ibon Artola ('Euskal Herria Sozialista' aldizkaria). Anoeta.

Gorren komunitatearen sentsibilizazio astea ospatuko dute biharkoan

Gizartea » Egun guztian zehar izango dira ekitaldiak; tartean, Gipuzkoako antzerki talde baten estreinaldia.

ESTI EZEIZA

Gaunditzen Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren elkarteak V. Sentsibilizazio Astea antolatu du. Honen baitan, bihar, egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira.

Horrek dituzten muga eta ezintasunez jendea ohartzeko asmoz, Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea antolatzen hasi ziren duela bost urte Tolosako Gaunditzen elkarteak. Orduetik, urtero, gauza ugari egiten dituzte. Oraingoan, iaz bezala, herri kirolak, antzerkiak eta kontzertuak izango dira.

Euskal Herriko hainbat elkarteko kideak etorriko dira Tolosara ekintzetan parte hartzera. Baina baita eskualdekoak ere. Gaunditzenekoek luzatutako datuen arabera, 35 gormutu inguru daude Tolosaldean. Halaber, bertako jendeak ere parte hartzen du ekintzetan.

Entzun dezaketenen eta gorren arteko zubia

Sentsibilizazio aste honek, gorren eta entzun dezaketenen arteko ha-



Herenegun aurkeztu zuten V. Sentsibilizazio Astea, Gaunditzen elkarteko kideek. E. EZEIZA

rremana gerturatzea eta sendotzea du xede. Izan ere, Gaunditzen elkartekoek azaldutakoaren arabera, «eguneroko bizitzan zailtasun ugari ditugu, askotan albo batera uzten baitezakete entzun dezaketenenek». Beraien esanetan jende asko «beldurtu» egiten da gorrengana hurbiltzean, uste dutelako ezin izango direla komuni-

katu inola ere. Horregatik, gerturatzeko pauso hori ematea ezinbestekoa dela uste dute Gaunditzenekoek.

Gipuzkoarrak taula gainean

Emanaldi gehienak iazkoen antzeakoak izango badira ere. Aurtur, lehendabiziko aldiz, duela gutxi sortu den Gipuzkoako antzerki-

talde baten emanaldia ikusi ahal izango da. *El cocinero en el televisor* (Sukaldaria telebistan) izeneko lana taularatu dute hauek, eta Julian Rodriguez eta Gorka Blanco dira antzezlaneko protagonistak. Irailean hasi ziren prestatzen obra, eta hilabete berean, Gorren Nazioarteko Egunean, Bergaran aurkeztu zuten. Beraz, biharkoan

» EGITARAUUA

Azaroak 22, bihar

■ **Herri kirolak.** 10:00etatik 13:30era bitartean, San Frantzisko Pasealekuko 12an. Elkarte ezberdinetako kideek hartuko dute parte eta dohainik izango da. Ondoren, txistorra pintxoak eta ardoa izango dira dastatzeko.

■ **Antzerkia.** 18:30etik aurrera, lau antzerki emanaldi izango dira ikusgai Leidor antzokian. Lehendabizikoa *El cocinero en el televisor* (Sukaldaria telebistan) izango da. Jarraian, Uyu yui taldearen, *Crímenes ejemplares* (Ereduzko krimenak) ikusi ahal izango da. Ondoren, Christian Gordoren *Show de Chirigo* (Chirigoren ikuskizuna). Azkenik, Chavi Guisadoren *Show de Chavi* (Chaviren ikuskizuna) emanaldia izango da. Denera, bi ordu inguru iraungo du ekitaldiak.

■ **Musika.** 23:30etik aurrera Casino elkartean, Londresko Deaf rave taldearen emanaldia izango da. Baita, Chavi Guisadoren ikuskizuna ere.

beraien bigarren emanaldia izango da, eta protagonisten hitzetan «gogotsu daude Tolosan antzezteke», izatez, bertakoak baitira.

May Gorostiaga tolosarraren eskutik, antzerki tailer bat egin zuten, eta honen ostean sortu zen Rodriguez eta Blancoren antzerki taldea. «Aurrera begira, horrelako proiektu gehiago egiten jarraitu nahia» dutela adierazi zuen herenegun iluntzean egindako aurkezpenean, Julian Rodriguezek.

Nafarroako artisauren hogei postuz osatuta, azoka izango da asteburuan

Ekonomia » Nafar lur elkarteak antolatu du ekimena; goiz eta arratsalde, gaurtik igandera izango da zabalik.

E. EZEIZA

Gaurtik igandera bitartean, Nafar lur artisau taldearen 20 postu aurki daitezke San Frantzisko pasealekuan. Nafarroako Artisautza elkarteak antolatutako azoka goiz eta arratsalde egongo da zabalik:

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Pertsona bat behar dugu, astelehenetik ostegunera arratsalde, Batxilergoko 1. mailako matematika, fisika, kimika eta teknologiako klaseak emateko. Deitu 616 97 49 64 edo idatzi amaia.sagasti@hotmail.com



Gaurtik igandera bitartean, San Frantzisko Pasealekuan egongo da. E. EZEIZA

■ **Eztabaida.** Krisi egoeran gaudela diote. Zuk zertan nabaritzen duzu hori? Nola egin ahal zaio aurre eguneroko bizitzan? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

www.tolosaldeko-hitza.info

09:30etik 14:00etara eta 17:30etik 21:30era. Artisautzako erakusketa honetan ikusi eta erosi ahal izango dira beirazko artisau-lanak, larruzkoak, zurezkoak, zeramikak, kosmetiko ekologikoak... Horietaz gain, Nafarroako artisautzako

elikagaien elkarteko produktuak ere eskuratu ahal izango dira.

Nafar lur elkarteak duela bederati urte sortu zuten Nafarroako artisauak. Orain arte, probintzia horretan bakarrik antolatu dituzte azokak, baina, orain, handik atera, eta lehendabiziko aldiz, Tolosan egingo dute.

Elkartearen helburua da, beraiek antolatzen dituzten azoketan, postu guztietan, artisautza produktuak bakarrik egotea. Izan ere, Marta Txibite Nafar lurreko kidearen esanetan, «beste hainbat artisautza azoketan, izen honekin, konpotik erositako produktuak saltzen era erakusten dituzte». Hala, erakustokian dagoen produktuaren ekoizlea bera, han egoitea bermatzen dute Nafar lurrekoek.

Artisauen elkarteko kideak azaldutakoaren arabera, «gure helburua ez da urtean azoka asko antolatzea, baina aurtur, aukera hau suertatu da, eta Tolosara etorriko gara». Hala ere, hurrengo urteari begira, agian, beraien tokia,

Gipuzkoako Lur elkarteak har dezakeela gaineratu du Marta Txibitek. Aurtengoa ere, beraien laguntza izan baitute.

Artisautzaren egoera

Oro har, Euskal Herrian ongi baloratua dago artisautza. Lantegi handietan ekoiztutako produktuak baino hobeto ikusita daude eskuz egindakoak.

Bertako lehengaiekin, tailer txikituan egingako produktuak dira. Artisautzaren abantailen artean, «bitartekorik gabeko salmantan, produktuak berak balio duena ordaintzen du erosleak», aipatzen zuten Nafar lurrekoek. Honen bestez, artisautza merkea ez bada ere, bere benetako balioa hori delako dela gaineratzen du Txibitek.

Etorkizunera begira

Artisuen aldarrikapenentako bat da, eskola gutxi daudela. Arlo gutxi batzuetan izan ezik, gainontzekoetan ez dago ikasketa espezifikorik. Hori dela eta, artisau helduagoekin ikasi behar izaten dute gaztegoek. Dena den, Nafar lurrekoen iritziz, etorkizunean ere, jendeak nola edo hala ikasten jarraituko du, eta artisautza mantenduko da.

E Elkarrizketa

MARI KARMEN IRADI Tolosako Babarrun Elkarteko lehendakaria

Irura » Bihar Babarrun Astearen baitan egingo duten lehiaketan hartuko du parte Babarrun Elkarteko lehendakariak; iaz berak eraman zuen saria etxera.

NOELIA LATABURU

Ez du inoiz nekatzen babarrunaren inguruko hizketaldiak. Aste honetan lanpetuta dabil han eta hemen, baina «gogotik eta pozik» eramaten du aurrera zeregin hau Iruran bizi den Mari Karmen Iradi (Hernani, 1942) Tolosako Babarrun elkarteko lehendakariak.

**Nola hasi zinen Babarrun elkarte-
an?**

Betidantik etxean egin izan da babarruna, etxeko elikagai printzipala bezala. Bizi guztian ezagutu dut. 1994. urtean babarrunari gorakada emateko asmoa azaldu zen. Orduan hasi ginen elkartea egin behar zela, ordura arte babarruna etxean egiten zen eta irtenbide handirik ez zen. Baita ere, salmentak hobetzeko, garai hartan prezio oso bajaran zegoen. Ordun 40 lagunek osatu genuen elkartea.

Elkartea hezitzen eta hazitzen ikusi duzu, beraz.

Bai. Orain 70 gara eta oso giro ona dago. Tarte horretan egin genuen elkarteko pabilioi berria. Orduan hasi ginen makineria guztia jartzten. Izan ere ordura arte han hemenka lekua non trasteak han ibiltzen ginen. Komenitzen zentro bat. **Makineria sartzea onuragarria izan al zen babarrunarentzat?**

Bai, bai. Bestela, hainbeste kilo manejatzea ezinezkoa da. Lehengo era egiten zena aurretik baina kantidade txikitik. Hauek ahaztu zaizkigu, guretzat libertade handia izan da makinak erabiltzea. **Nola egiten duzue lan elkarte-
an?**

Guk babarruna biltzen dugu eta zakuetan jarri eta bertan aletu egiten da. Aletuta, kate batean daude denak; hauek bereiztu eta azken pasada eskuz ematen zaio. Ondoren, izozkailuan sartzen da (-20 gradu) hiru egunez zomorrerik ez ateratzeko. Handik atera, lehortu eta zaku txikietan jartzen da. Horrela saltzeko pronto dago.

**Noiz hasi zineten prozesu hone-
kin?**

Irailen hasi ginen honekin. Azaroaren amaierara arte egoten gara. **Izena ere hartu du zigiluak.**

Bai erosleak bai ekoizleak konfiantza hartu du honengan. Lehen baserriarrek lan egin eta ez zuten nora saldu, hori triste da. Elkartea enkargatzen da saltzeaz. **Ekoi-ze bezala nola jartzen dira zuekin harremanetan?**

Telefono bat dago (943 650235). Hemen harremanetan jar daiteke edozein, hori bai, behar du Gipuzkoako izatea. Tolosakoa du izena



N. LATABURU

«Babarrunaren prozesua oso aberatsa da, sekulako betekada ematen dit»

baina herri askotan dago Tolosako Babarruna.

Non batik bat?

Batez ere eskualdekoa da gehiena. Horretaz gain Zumaian, Azpeitian, Oiñatin, Andoainean, Errenterian... ere badaude ekoizleak.

**Eta zer behar du babarrunak To-
losakoa izateko?**

Kontrola. Udan pasatzen da kontrola soroz: neurtu eta zer moduzko produkzioa den ikusi. Inportanteena eguraldia da. Tratamendua sorozan ere ona eman behar zaio. Belarrak kendu eta soroz garbi eduki. Bestela galdu egiten da. Eta gero udazken ona behar da biltzeko. Forma aldetik, berriz, Tolosako babarrunak giltzurrun tankera du, begi txuria eta dizdira onekoa da.

Pasako zitzaizuen babarrunak atzera bota beharra?

Bai, zimurrak, zikinak edo zatituta badaude horiek baztertu egin behar dira. Elkarreak bakarrik ondo osatutako babarruna sartzen du zukatan.

**Nola jakin benetan Tolosako Ba-
barruna erosten ari garela?**

Elkarteko zigilua darama, baita labelarena. Ekoizle bakoitzak bere

Erosleak zukuan dauden datuak ikustea eta ikastea komenigarria da, segurtasuna ematen du

zenbakia du. Eta zein urtetako produkzioa den ere zehazten da. Komenigarria da erosleak datu hauek ikustea eta ikastea. Seguridadea ematen du honek.

Zer neurritan eros daitezke?

Kiloerdiko zakuak, kilokoak, 10 kilokoak, 25ekoak. Garai bateko lankaria ere saltzen da, 3 kilokoak.

Urteroko galdera... Aurtengo uztza, zer moduzkoa?

Atzera xamar izan da. Udaberrian giro txarra izan zen. Berandu xamar egin ziren baina orain aurretik giro ona izan da eta oso babarrun ona bildu da. Espero dut jendea gusturagelditzea.

Iaz zuk irabazi zenuen babarrun lehiaketa. Aurtengorako ere irabazteko prest?

Ez dakit, kantitate ona dago bilduta, baina oraindik zer ikusi handia dago. Lehiaketan babarrunaren zati bat dastatzeko preparatu behar da, beste zati bat mustrarako. Bi hauek neurtu eta bien arteko emaitzarekin ateratzen dute txapeliduna.

Lehendakaria zara. Aste honetan biderkatu beharko zara leku guztietan egon ahal izateko...

Bai, hala da. Aurtengoa eman behar dut elkarteren izenean. Gainontzean, erabakiren bat hartu behar denean nik dut azken hitza. Ondoren oso jende ona daukat, lan handia egiten duena. Lana ondo egiten denean emaitza ikusten da, fama. Eta hori komeni zaigu guri, fama. Eta probetxua zer esanik ez dago.

Fama aipatu duzu. Italiako azoka batean ere izan berri zarete.

Oso pozik etorri dira elkartekoak handik, eta harrituta geratu dira jendeak nola ezagutzen duen ba-

barruna hemendikanpo ere. Guk uste baino gehiago.

Handik bueltatu eta Babarrunaren Astea.

Orain tope. Aurten gainera lanak atzeratu egin dira, giro ona egon ez delako. Lehiaketako ere prestatu behar gara. Derrigorrez zaku bat kilokoa (degustaziorako) eta beste hiru kilokoa (lakaria) prestatu behar da enkanterako. Gainera, Gure Kaiolak antolatzen duen lehiaketarentzat ere irabazleak 22-23 zaku prestatu behar ditu...

Babarrunak ere ezagutuko al du krisia?

Ez dut uste. Izan ere, oso ondo aseptuta uzten zaitu babarrunak. Platerkada batekin ez duzu beste ezer behar. Gainera, prezioa iazkoa izango da, 13 euro.

Sukaldean ere jakin behar babarrunak ondo prestatzen. Emaidazu errezeta on bat.

Nik betiko eran egiten ditut: ur hotzean jarri iltzean zuzenean beratzen jarri gabe. Gure babarrunak ez dira beratzen jartzen, jendeak ohitura duen arren... Gurea ondo egosten da, tipula pixkat, baratxuri pixkat, ale bat edo, eta olio gordina,

Elkartean bezala, lana ondo egiten denean emaitza ikusten da: fama; eta hori komeni zaigu guri

ez gehiegi. 3 orduz eman irakiten, eta gatza azkenezan bota. Ez dut beste misteriorik. Salda lodi-lodia aterako zaio eta gozo-gozoa.

Sakramenturik gabe orduan.

Hauek aparte egosi eta aparte zerbitzu; gero nahi izanez gero, batera jan.

Edateko, berriz?

Dudarik gabe nik sagardoarekin. Produktu fuertea nola den atzetik zer bait bixia eskatzen du.

Babarrunaren ibilbidea abian jarri dute, zer iritzi duzu?

Ekimen ona iruditzen zait. Soro txiki bat dago hor Santa Maria ondoan eta gainera uste dut oso babarrun ona atera dela hortik. Ideia bat egiteko ondo dago baina komeni da baserrietara ateratzea ikusteko benetan nola egiten den lana.

Nolatan ez da inoiz egin horrelakorik?

Etorri izan dira bisita gidatuak eta benetan harrituta geratu dira nola aritzen diren sorozetan. Iaz, esaterako, AEBtik etorri ziren, Hernialdera joan ziren.

Ezin ulertu zure bitzita babarrunarik gabe...

Ufff, ez, ez. Niretzat asko suposatzen du babarrunak. Etxeko alimantu printzipala izan da eta da. Gero udaberriatik hasi eta segidako prozesua du eta ikusten duzu jaio denetik hazitzen hiru hilabetez eta beste bi hilabete heltzea... Ba oso prozesu aberatsa da eta bizi poza da niretzat.

Begietan dizdira eta guzti ateratzen zaizu.

Bai, sekulako betekada ematen dit.



Pasa den maiatzean erandako lurrak, biltzatzen dituzte; ondoren Zerkausira doaz azken urratsa, aukeratzeko, babarrunak platerakada on bat jateko da.

GASTRONOMIAREN TURISMOA

Aisia » Bihar emango diote itxiera pasa den udan abiarazi zuten babarrunaren inguruko ibilbideari, «landaketa garaia bukatu delako».

EREDAKZIOA

Esan bezala, berezia izango da biharko ibilbidea, Babarrunaren Asteko asteburuak bat egingo baitu, Gainera, Tolosako Babarrun Ekimena Xabier Golloetxearen gidaritzapean burutuko dute bistariek azken ibilbidea eta honek babarrunaren inguruan beharrezko azalpenak banatuko dizka.

guruak beharrezkoak azalduko dituzten. Haseak irakurtu, babarrunaren berezitasunak zentzuzki diren jakin ahal izango dute bistariek, Golloetxearen eskutik.

Babarrunaren ibilbidearen poltsa
Hurrengo urratsa bistarientzat Tolosako Zerkausira joatea izango da. Bertako merkatuan izango da jarrizena babarrunaren ibilbidea. Erreka bazter honetara larunbatero hurbiltzen dira inguruko herrietako baserriarrik, euren produktuak saltzera. Gainera, egun berezia izango da babarruna izango baita protagonista eta herri guztia oso errakizim ibilbideko dno. Hala, turistek, bestak beste, lekale prezina erosi ahal izango dute.

Babarruna, bera, Zerkausiko azoka eta jatek txak sustatu nahi izan dituzte ibilbidearekin
ez da derigarrezko ibilbide egiten dutenen erdiek aukeratzen dute gajogorabehera.

ibilbidea, zerbitzu bat gehiago
ibilbidea hau Tolosaldia Tour-ekin egiten dituen eskaintzen artean barneratu dute, eskualdeko turismozentratz zerbitzu bat gehiago da. Landaketa amaitu denez, datoren maiatzera arte bukatutzat joko dute. «horretarako herri sozian babarrunak landatzea behar baita».

«Bertan azalduko diegu erretze- gabe» ekin diote zerbitzuari baina datorren urtean ere hori eusteko asmoa dute. «Larunbateroan bistariek eskaintzen genuen, horregatik harrera leuna izan da».

Babarrunaren garrantzia
Tolosan
Tolosako turismo gastronomia-ekin lotzen sistema da aukerakidua. Horregatik, «Tolosako ilurra den produktu gastronomia oso garrantzitsua ikusi zuten Tolosaldia Garatzen agentzirik, Olatz Ilarregi aditza emen duen bezala. Izan ere, «jende asko kudeakerekin identifikatzen da babarruna eta oso arakastua da jende asko etortzen da hona babarrun erostera eta jatera».

Zerkausia. Ondoren, Azoka Bezeira joango dira, bertan labeldun babarrunak erosi ahal izango dituzte, bestak beste. Horretarako babarrunaren ibilbidearen poltsa jaso dituzte bistariek.

Hiru elementu hauek (babarruna, bera, Zerkausiko merkatua eta herriko jatek txak) uzartuko zituen zerbitzu nahi zuten eta horrela sortu zuten babarrunaren ibilbidea.

Oraindik ere babarrunaren bi-deari jarraitu ez diotenek, beraz, bihar dute surtego azken aukera, 11:00etarako aurrera Tolosako Tolosaldia Tour-eko buldogera azalduko da.

Hiru elementu hauek (babarruna, bera, Zerkausiko merkatua eta herriko jatek txak) uzartuko zituen zerbitzu nahi zuten eta horrela sortu zuten babarrunaren ibilbidea.

Oraindik ere babarrunaren bi-deari jarraitu ez diotenek, beraz, bihar dute surtego azken aukera, 11:00etarako aurrera Tolosako Tolosaldia Tour-eko buldogera azalduko da.

«Gure produktua zabaltzeko eta ezagutzera emateko turismoarekin lotutako ekimenak bultzatzea positiboa da»

XABIER GOIKOETXEA | Ibilbidearen gidaria

Tolosan » Babarrun ekimena da eta bera arduratuko da azken Babarrunaren ibilbidearen gidaritzatzailea.



«LATASIRI
Bihar Babarrunaren ibilbidea egiten duten bistariek oheretako gidaria izango dute, Tolosako Babarrun ekimena Xabier Golloetxearen gidaritzapean burutuko dute. Babarrunaren inguruko lanak azalduko dituzte.

Ekimen mota hauen aldekoa zara, beraz.
Dudarik gabe, oso positiboa iruditzen zait turismo gure produktuariekin lotzeko; gure babarruna zabaltzeko eta ezagutzera emateko bidea da azken batean, turismoarekin lotutako ekimenak oso positiboak dira. Halab, babarrunaren lanak hiritira ekartzea ere oso

positiboa da; jendea hobeto ezagutzeko aukera ematen dio eta ezertik dagoen-lana hobeto ikusiko du.

«onartu muen, oso ekimen polita iruditzen zait eta».
Bai, noski. Babarrunaren bitzitza

«Urteko azkenia izango da...»
Bai, noski. Babarrunaren bitzitza

«Babarrun ekimena batik bat aste honetan da ezaguna...»
Lanaz gainekoa gaude orain, bai Babarrunak prestatzen ari gara orain arte ez dugula atxekidun, Gainera, aste honetako ekitaldiak antolatzen ari gara.

«Zu ere lehia etaren txapelaren bila?»
Ez, ez. Ekolojia nahi baina antolatzen erabari buru berrak sartuta nagoenez ez luke turismoen emangonik parte hartzea, eta eragutikio irabaztea.

«Zuk, ekolojia bezala, nola ikusten duzu surtegoa?»
Biharpegi dugu produzio aldekoa du, kanitate adetik, ez da oso urte ona izango, baina kalitate aldekoa izango dira surtego bezalako. Ia-ia ez da bigarren mailako babarrunarik izango. Oso-oso ona atera da. Udazkena ere proposo egin du, lehor samarra aukeran, baina honek bainenduko du babarruna sinos izatea, aldoz oso ondo osatuta, gileondatuta, benetako on-ota ateratzailea. Eta erotzek berdin pentsatzen dute.

Tolosako babarrunaren berezitasunak

Gizariek » Merkitzuan dauden babarruneko berezitasunak diren ezagurrak bete behar ditu Tolosakoak.

Landerre jatorriko eltagaien artean babarruna da proteinetan aberatsenetakoa. Egoskaririk aberatsen gutxi dute, zerealekin, oves, aldeantzez gertatzen da, eta elkarrekin balo biologiko naharrena dute proteinetan osatzen dituzte.

terro goldearen sakotasuna aldeatza komeni da, guruz gogorak bertan eragotzeko. Lan hori urrik-rik abent

Maiatzaren erdikaldera erietan da babarruna. Iztoren aurrerakidua izango dute, lekuak bezalakoak dituzten peral behar bezala helduta daudenak. Aurretik handiz egiten den elkarrekin sistema hori da Tolosako Babarrunaren guri mailako kalitatea bermatzen duena.

Bildu ondoren, lekuak beti egin izan den moduan baserrietako gainbretan zabaltzen dira, harik eta aletek %100 hezetasuna lortu arte (guriak horiek ez bustituko moduko lekua izan behar da beti).

EREDAKZIOA

Tolosako herrietara (Aiena) Mintegietako Hazien eta Landareren Institutu Nazionalaren erregistroa dago. Tamaina zehatzik ez da (lanare alta), eta oso, sare, makila edo bagazo bidez lagunduta egiten da ekolojia. Aita Bibeon erietan da orduak aurrera 120-170 eguneko aldia behar du bildu arte. Okoideko jilgarunak itzarkoak dira, eta kolorea, beriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa.

Babarrunaren prosessa
Tolosako babarruna oihiko erietan da eta ingurumena erregulaturaz, inolaz behar gabe eta eskulan ugari erabiliz. Maiatzaren erdikaldera urtaren erdikaldera, eta kolorea, beriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa.

Babarrunaren prosessa
Tolosako babarruna oihiko erietan da eta ingurumena erregulaturaz, inolaz behar gabe eta eskulan ugari erabiliz. Maiatzaren erdikaldera urtaren erdikaldera, eta kolorea, beriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa.

Babarrunaren prosessa
Tolosako babarruna oihiko erietan da eta ingurumena erregulaturaz, inolaz behar gabe eta eskulan ugari erabiliz. Maiatzaren erdikaldera urtaren erdikaldera, eta kolorea, beriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa.

Babarrunaren prosessa
Tolosako babarruna oihiko erietan da eta ingurumena erregulaturaz, inolaz behar gabe eta eskulan ugari erabiliz. Maiatzaren erdikaldera urtaren erdikaldera, eta kolorea, beriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa.

Sarrera para zozketari! **BRUESA GBC CAI Zaragoza IGANDEA 23-12-30** irabazleak: Karmele Arsuaga (Orendain) **Sarrera HITZAKO** egotzitan izango dituzu. **BABARRUN JATEA** irabazleak: Edurne Jauregi (Ballarain) **Azaroak 23** | Igandea Gure-Kaiala ekartean **Tiketak zerkausian bertan izango dituzu.**

Babarruna. Hotzarekin erlazionatzen dute askok. Eguraldi kaskarrekin. Jan ondorengo siestarekin. Lagun arteko bazkariarekin... Baina sukaldian norberak sartu behar duenean nola prestatzen ditu jendeak babarrunak? Sukaldari ezagun batengana jo eta bere sekretuak azaldu ditu; kaleko jendeari ere bere sukaldatzeko sekretutxoak kontatu ditzan eskatu diegu.

«Urte Berria babarrunak janez ospatzen dut; babarrunari esker ona emateko modua da»

ROBERTO RUIZ Sukaldaria

Sukaldaritzan » Ekoizleen Lehiaketako babarrunak prestatuko ditu bihar; babarruna ez dela «inoren ondea» dio sukaldariak.

NOELIA LATABURU

Babarrun platerkada on batean pentsatuz gero askori Roberto Ruiz (Beasain, 1968) etortzen zaie burura, maisua baita Tolosako lekalea ongi prestatzen. Babarrunaren Astearen harira, inoiz baino gehiago prestatu behar izaten ditu, baina ez dago arazorik, guztietan hatzamarra miatzatzeko modukoak egiten omen ditu.

Slow food-aren inguruko mahai-inguruan parte hartu berri duzu.

Bai, sukaldari bezala dudana esperientziatzat jardun nuen bertan, baina produktu hauekin dudana erlazioaz ere. Urte asko daramatzagu zuzenean baserriarri erosten, produktua ahalik eta azkarren heltzeko bezeroari. Izan ere gauza ez da ahalik eta gehien erostea, baizik eta egunean bertan erostea eguneko, eta garaian garaikoa.

Hori da, beraz, zuk lanean duzun filosofia.

Bai, produktuaren sukaldatzearen filosofia da, gertuko sukaldia da. Baina, halaber, oso goxoa dena.



L.TERRADILLOS

Horretan saiatzen ari gara azken urteetan. Bai babarrunarekin bai beste hainbat produktuekin, Errezilgo sagarrarekin, ardi latxarekin...

Babarrunaren Astean bete-betean. Babarrunak egin eta egin?

Bai, goi-denboraldia da guretzat. Urritik otsailera bitarte babarrun asko zerbitzatzen dugu, egunero betetzen da jatetxea babarrunak jan nahi duen jendeaz.

Sukaldari on guztiek euren sekretuak dituzte sukaldian. Zurea babarrunekin zein da?

Tolosako babarrunaren inguruko sekretuez hitz egitea Tolosan bertan oso zaila da. Ni kanpotik datozenez atadierazle komertziala naiz baina errezetak ez du misteriorik, baserrietako amonek beti-

danik sukaldatu duten platera da. Gure ekarpenak egin dizkiogu platerari, esaterako, ez ditugu berazten jartzen, oso garbi prestatzen ditugu, sakramentuak ere aparte...

Baina bestela, amona guztiek duten errezeta bera erabiltzen dute. **Sukaldian, zertan igertzen duzu Tolosakoa dela?**

Berezko izaera bat du, kolore eta forma aldetik, baina ezaugarri nagusia da Tolosako babarrunak bereziki krematsua den salda sortzen duela, ikusgarria da. Gainontzekoek ez dute salda hori lortzen, ez behintzat ez badituzu txikitzen.

Bertakoentzat ez da produktu berria. Baina jatetxera kanpotik joaten den jendeak zer irizti du?

Kanpotarrei atentzioa deitzen die lehenik babarrunaren koloreak.

Askok kafearekin nahasten dute. Behin probatuta, zaporea ikaragarri gustatzen zaie. Hasieran askori atzera bezala egiten die baina gero ez dio inorri kale egiten.

Zein da egoerarik egokiena babarrun on batzuk jateko?

Hasteko, neguan, babarrunak ondoen sartzen den garaia. Eta, noski, alboan duzuna da garrantzitsua. Oro har babarrun-jateak herrikoiak izan ohi dira, ospakizuneraiko aitzakia izaten dira. Nire kasuan, agian, bazkari herrikoiaz gain jatetxean izan ditugun bisita bereziak etortzen zaizkit burura: Lou Reed etorri zenekoa, Miguel Delibes, Marta Dominguez...

Eta zuk oroitzen duzun babarrun-jaterik gustukoena?

Urte berrian. Urtarrilaren 1a nire etxean babarrun-jatearekin ospatzen dugu. Era honetan, gure esker-erak ematen dizkiogu.

Babarrunarekin identifikatzen dute askok zure izena. Zer suposatzen du zuretzat honek?

Oso garrantzitsua da. Babarruna gure etxearen eta gure lantaldearen parte da. Izan ere, babarrunak gauza asko baimendu dizkigu: izena hartzea, bidaiatzea, hitzaldiaren parte hartzea...

Nondik ikasi duzu sukaldian?

Beste sukaldari askok bezala, sukaldarien eskolan ikasi nuen, hor-

jaso nuen prestakuntza guztia. Baina sukaldian ikasi, produktua maitatzen ikasi, maitasunez sukaldian aritzea ikasi... zati sentimentalo hau nire aitarengandik ikasi nuen. Elkartetako sukaldari peto-petoa zen hura eta harekin ikasi nituen gauza hauek guztiak.

Biharko azoka berezian ere parte hartuko duzu.

Bai, Ekoizleen Lehiaketara aurkeztu diren babarrun guztiak sukaldatuko ditut. Era berdinean sukaldatuko ditut.

Babarruna gure etxearen eta lantaldearen parte da; bidaiatzea, izena hartzea, baimendu digu

datzen ditugu, ontzi berdinean, kopuru berdina, ur kopuru berdina, proportzio berdinean... Noski, ez dakigu babarruna norena den. Zerbaki batzuen bidez identifikatu dira.

Ekoizleen elkartean ere zeresan handia du. Zer erlazio duzu elkartearekin?

Harreman ona dago, gu ere ekoizleak gara eta elkarteko kide gara. Baina gauza bat izan behar dugu kontutan, babarruna ez dela inoren ondare eksklusiboa. Hau da, babarruna ez da nirea, ez kofradiarena, ez elkartearena... Guztiona da, zurea, nirea, baserriar guztiona, elkarteko kide diren eta ez diren ekoizleena, tolosar guztiona... Babarrunaren gurasaok guztiaren gainetik baserriarrenak dira, hainek gabe ez genuke ezer edukiko. Gero jendeak lan egin du honen inguruan, elkartek, Foru Aldundiak, sukaldariak...

» INKESTA

1. Inoiz prestatu badituzu babarrunak, nola egiten dituzu? 2. Babarrunaren Astean azokan parte hartuko al duzu?



«Sakramentu guztiekien eta ardoarekin hartzen ditut»

Txema Urizar
ORDIZIA

1. Bai, prestatzen ditut. Betiko moduan egiten ditut, bi ordu tipi-tapa su epelean. Noski sakramentu guztiak jartzen dizkiot eta edateko, Errioxako ardoa. Agian aste honetan bertan prestatuko ditut baina hilean behin-edo jaten ditugu, pisuegia da.

2. Ez zaizkit horrelako azokak baxterez gustatzen eta, beraz, ziur nago ez dudala parte hartuko azokan.



«Tolosarra izanik oso gustuko dut azoka»

Ramoni Medina
TOLOSA

1. Bai, prestatzen ditut era arruntan, sekreturik gabe. Baratxuria, tipula eta olioarekin jartzen ditut eta poliki-poliki egiten ditut, pazientziarekin. Sakramentuak aparte egiten ditut. Niri ez zaizkit gustatzen baina nahi duenarentzat prestatzen ditut. Egia esan, dezentetan jaten ditugu etxean.

2. Noski joango naizela. Tolosarra naiz eta hala izanik gustuko dut azoka hau.



«Bezperan prestatuta salda lodiagoa geratzen da»

Maria Jesus Urtxipia
TOLOSA

1. Astean behin egiten ditut, gehienetan igandetan, seme-alabak etxera datozelako. Bezperan berazten jartzen ditut eta gero ur berdinean egosi egiten ditut, tipularik eta gabe, bakarrik olioarekin. Bezperan egiten saiatzen naiz, salda lodiago geratzen zait horrela. Nire etxean betidanik jan izan ditugu babarrunak.

2. Bai, buelta bat ematera jaitsiko gara.



«Oso gustuko ditut baina hilean bitan jaten ditugu»

Maite Hernandez
TOLOSA

1. Misteriorik gabe prestatzen ditut, batetik babarrunak egosi eta bestetik haragia eta txorizoa prestatzen ditut. Odolkiak ere batzuetan baina aza ez zait gustatzen. Etxean asko gustatzen zaigu baina hilean bitan-edo bakarrik jaten ditugu, bestela... [barreak].

2. Azokara joan izan naiz beste urtetan baina aurtengoa ezingo naiz joan. Orokorrean egoten den giroa asko gustatzen zait.



«Plater bakarra den edo ez desberdin egiten ditut»

Javier Mendizabal
TOLOSA

1. Bai, batzuetan andreak prestatzen ditut eta besteetan nik. Desberdin prestatzen ditut plater bakarra izango den edota atzetik beste bigarren platera egongo denaren arabera. Sakramentuekin denean gero postrearekin nahiko izaten da.

2. Giro polita egoten da baina Dorostian bizi naiz eta handik etortzeko ez da eraza... Hala ere, igandekoa ere oso polita izaten da.

Mendia protagonista Villabonan eta Asteasun

Mendia » Villabonako Aizkardi elkarteak eta Asteasuko Sagain elkarteak mendi asteak antolatatu dituzte.

IMANOL GARCIA

Villabonako Aizkardi mendi elkarteak eta Asteasuko Sagain mendi elkarteak mendi asteak antolatatu dituzte datorren asterako. Aizkardi mendi garaien inguruko ikus-entzunezkoak jarri ditu, izen ezagunak eta inguruko mendizaleak uztartuz. Sagainekoek hitzaldiak, mahai-inguruak eta txapelketak uztartu dituzte.

Aizkardikoen 25. Mendi Astea izango da. Mendizaleetasunaren izen ezagunak izango dira Villabonan. Ohi bezala, Gurea aretoan egingo dituzte saio guztiak. Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Joxe Ramon Agirrek beraien ikuskizunak erakutsiko dituzte. Kontuan hartu behar da, hasiera batean Juan Vallejoren saioa asteazke-

» MENDI ASTEEN EGITARAUAK

AIZKARDIKO 25. MENDI ASTEA

Azaroak 24, astelehena

■ **20:00.** Joxe Ramon Agirre, *Aire airean*, Broad Peak (8.047 m.).

Azaroak 25, asteartea

■ **20:00.** Mikel Legarreta eta Arkaitz Lasa, *Korzenevskia* (7.105 m.).

Azaroak 26, asteazkena

■ **20:00.** Unai Zendoia eta Oskar Porras, *Arma Dablam* (6.856 m.) eta *Imja-Tse* (6.189 m.)

Azaroak 27, osteguna

■ **20:00.** Alberto Iñurrategi, *Begiz begi*.

Azaroak 28, ostirala

■ **20:00.** Juan Vallejo, *Montañas*

nean izan behar zuela, baina azkenean ostiralera atzeratu behar izan dute. Ostiralean izan behar zuen emanaldia, Unai Zendoia zizurkil-

del Karakorum. Ikus-entzunezkoaren ondoren I. Argazki Rallyaren lanen erakusketa eta sari banaketa egingo dute.

Azaroak 30, igandea

■ **08:30.** Mendi ibilaldia (Olaederra ondoan elkartuko dira) eta ondoren bazkaria.

ASTEASUKO MENDI ASTEA 2008

Azaroak 24, astelehena

■ **20:00.** *Cañones y barrancos de Euskal Herria*, Araba Ascentium-erria, udaletxeko zine aretoan.

Azaroak 26, asteazkena

■ **20:00.** Mahai-ingurua egingo dute Gazume eta bertan eraiki beharreko parke eolikoaren ingu-

darra eta Oskar Porrasena, beraz, asteazkenean izango da.

Hain justu, izen ezagunez gain, inguruko mendizaleen espedizio-

ruan. Udaletxeko zine aretoan izango da ekitaldia.

Azaroak 28, ostirala

■ **20:00.** *Bidaia, eskalada... el espíritu de una pasión* Leire Agirrekin, udaletxeko zine aretoan.

Azaroak 29, larunbata

■ **11:00.** 4. Orientazioa Lasterketa. Taldeka eta erreleboka ariko dira parte-hartzaileak eta gazte eta helduentzat dago zuzenduta proba.

■ **17:00.** 4. Asteasuko Eskalada Txapelketa antolatuko dute haur eta gazteentzat.

Azaroak 30, igandea

■ **09:00.** Herriko plazatik abiatuta mendi ibilaldia eta ondoren bazkaria Santamaña elkartearen.

en berri ematea ere izan ohi dute helburu Aizkardiok. Horregatik, aurten aipatutako bikoteaz gain, Mikel Legarreta eta Arkaitz

Lasa mendizale gazteak gonbidatu dituzte.

Bestalde, aurten lehenengo aldiz antolatuko dute Argazki Rallyaren sari banaketa egingo dute ostiralean, hilaren 28an. Azkenik, mendi ibilaldiarekin eta babarrunjatearekin amaituko dute astea. Azken horretarako 943 69 44 58 zenbakian eman daiteke izena.

Gaiak aukeran

Asteasun ere astelehenean hasiko dira saioak. Arroilei eta sakanei eta eskaladari buruzko ikus-entzunezkoak izango dira. Horretaz gain, energia eolikoari buruzko mahai-ingurua egingo dute, Gazume mendiarren egoerari garrantzia emanaz.

Txapelketek ere izango dute lekua. Orientazio Lasterketa eta Eskalada Txapelketa antolatuko dituzte. Astea bukatzeko, Sagainekoek ere mendi ibilaldia eta babarrunjate egingo dute. Plazatik abiatuta Larraul, Zelatun, Gazume, Andazarrate, Irumuño iagro eta Santamañan bazkalduko dute.

Mihiluze Txapelketa Kaxkagor elkartearekin

ERREDAKZIOA

Kaxkagor elkarteak Mihiluze Txapelketa antolatuko du Villabonaz Aiztondoko 12 eta 16 urte arteko gazteentzako. Herri-herri bikoteak osatuz, kanporaketak egingo dituzte. Adunan, hilaren 24ean, Asteasun hilaren 26an, Larraulen abenduaren 15ean eta Zizurkilan abenduaren 30ean. Finala Zizurkilan izango da urtarrilaren 3an. Izena emateko kaxkagor@hotmail.com era idatzi behar da.

Adimen emozionalari buruzko hitzaldia

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, adimen emozionalari buruzko hitzaldia izango da hilaren 24ean, Gurea aretoko erakusketa gelan, 18:30ean. Jose Fco. Amiama psikopedagogoak emango du hitzaldia eta bertan adimen emozionala azaltzeaz gain, egun gai horrek enpresetan eta eskoletan zergatik nabarmen izan ari den kontatuko du.

Kirolari onenak izendatzeko aukera

Zizurkil » Abenduko Kirol Astearen omenaldia egingo diote eta Kirol Batzordea proposamenak jasotzen ari da.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Kirol Batzordeak urte bakoitzean zizurkilarrak kirolari txapel dunei errekonozimendu xume bat egingo die abenduan antolatzen den Kirol Astearen baitan. Kirolari hauen zerrenda egiten ari

dira batzordetik eta edozeinek izenak proposa ditzake. Errekonozimendua diploma bat eta Urka mendi Elkartearen antolatzen den afari bat izango dira.

Errekonozimendu hau jasotzeko baldintzei dagokionez, alde batetik, kirolariak zizurkilarrak izatea, Zizurkil bizi izatea edo Zizurkilaren harreman berezia izatea bete behar du. Bestetik, 16 urte edo gehiago izatea, haurren artean kompetitibitate ekiditeko. Azkenik, Gipuzkoako txapelketaren bat edo goragoko kategoriako txapel-

ketaren bat irabazi izana edo garrantzi berezia duen probaren batean oso ondo ibili izatea edo haur irabazte behar du.

Kirolarien zerrenda irailetik aurrera egiten diren Kirol Batzordeko bileretan osatzen joaten da eta edozein herritarrek proposamenak bidali ditzake udaletxeko Kirol Zerbitzura posta bidez (Zizurkilgo.udal.bulegoak,Aurrera.Plaza.3,20159.Zizurkil), 943 69 24 95 telefono zenbakira deituz edo kultura@zizurkil.com helbide elektronikora idatziz.

San Martin jaien azken egunei ekingo diote bihar Ume Krosarekin

Amasa » Etzi bukatuko dira sanmartinak, Amasako XVI. Mendiastoiarekin eta XIX. Intxorrenaren aldatzearekin.

ERREDAKZIOA

San Martin Jaien azkeneko txanpa hasiko dute bihar Amasan. Kirola izango da protagonista bihar eta etzi. Ume Krosarekin hasiko dira biharko ekitaldiak. 11:00etan ekingo diote 6. mailara arteko haurrentzat antolatzen den proban.

16:30ean Kulkiren eskutik meztarien herri kirol eta jolasak izango dira haurrentzat. Ondoren, 19:00etan, argazki lehiaketaren sari banaketa egin eta erakusketa jarriko dute Kultur Etxeko areto nagusian. Biharko ekitaldiak amaitzeko, Lain eta Hesian taldeen emanaldia izango da 23:30ean.

Etzi ere kirolekin hasiko da eguna. 11:00etan Amasako XVI. Mendiastoiari ekingo diote. Eguneko eta festen azken ekitaldia 18:00etan izango da. Martina Sorginari agurra egingo diote eta XIX. Intxorrenaren Aldatzea egingo dute.

Laburrak

Musika kontzertua eta mus txapelketa, gaurkorako

ADUNA » Adunako Kultur Astearen baitan, gaur musika kontzertua izango da elizan. Loatzeko musika eskolakoek Santa Zezilia eguneko emanaldia egingo dute 18:30ean. Beste ekitaldi bat ere izango da, 21:30ean, mus txapelketa egingo baitute Txulobi elkartearen.

'El reino prohibido' eta 'Asesinato justo', Gurean

VILLABONA » Gurea aretoan zinema izango da asteburuan haurrentzat zein helduentzat. Haurrentzat bihar eta etzi emango dute *El reino prohibido* filma, 17:00etan, eta hiru euro balioko ditu sarrerak. Helduentzat *Asesinato justo* filma emango dute. Bihar 22:30ean eta etzi 19:30ean 4,50 euroren truke eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean, 3 euroren truke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Iaz ere babarrun desberdinak izan ziren ikusgai azoka berezian. E. EZEIZA

Ekintza ugari izango dira Tolosan Babarrun Astea dela eta; Babarrunaren Ibilbidea, azoka berezia, ekoizleen lehiaketa, enkantea eta txapelaren lehiaketa izango dira goizean zehar.

Babarrun festa oparoa, bihar

ERREDAKZIOA

Tolosako Babarrunaren Astea hasi da jada, baina egun handia biharkoa izango da. Izan ere, jatorria Ameriketako kontinentean duen Tolosako babarruna euskaldunon eguneroko jakia izan zen hamarkada askotan, eta beraz, lekale zapoetsu honen festa behar bezala ospatzeko ekitaldi asko antolatu dituzte.

Goizean hasiko dira ekintzak, Babarrunaren Ibilbidearekin, zehazki. Tolosaldea Tourren eskutik bistaldi gidatuak egingo dituzte babarrunarekin zerikusia duten herriko lekuetan. Lehendabiziko geldialdia, herriko Parke Arkeologikoko babarrun baratzean egingo da, han, gainera, Xabier Goikoe-txeak, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Elkarteak kideak, Tolosako babarrun beltzaren ezaugarri bereziak eta ekoizpen moduen inguruan arituko da. Bigarren geldialdia herriko azokan izango da.

Azoka berezia

Bestelakorik egongo da herrian, hala ere, 09:00etan babarrunaren azoka berezia izango baita.

Triangulon izango da azoka tradizionala eta bertan lekale goxo hau erosi zein dastatzeko aukera izango da, besteren artean.

12:00etan Triangulon, Babarrunaren Kofradiaren eskutik, 1.000 bat babarrun ano eta sagardo banatuko dituzte doan. Era berean, 8:00etatik aurrera, Triangulon Tolosako Babarrun Ekoizleen Lehiaketa izango da.

Han, Roberto Ruiz sukaldariak, Berrobiko Iriarte jatetxeko Felix Belaunzarán eta Tolosako Astele-na jatetxeko Peio Doyharzabal sukaldarien laguntzarekin, 2008ko babarrun onenaren norgehiagoka irabazteko asmoarekin aurkeztutako babarrunak maneatu ditu.

13:15etik aurrera ekoizleen lehiaketaren irabazlearen babarrunetik lakari bat (3kg) jarriko dituzte ekantean eta dirua Togoko San Paul ikastetxeko Elizbarrutiko Eskolako izango da.

Txapelaren Lehiaketa

Txapela estilo onenaren jantzen duena ere saritua izango da bihar, bi kategoria izango direlarik; emakumeena eta gizonezkoena. Txinparta Elkartean izango da lehiaketa 11:30ean.

Ezpeleta Elkarteko ostalariek, bestalde, babarrun-jatea antolatu dute herriko tabernetako ohizko bezeroen artean. 14:00etan izango da Alde Zaharreko edarritegietan.

Interkulturaltasuna bultzatuz

Ibarra » Gaur 17:30ean Kultur Etxean 'Babel Mundua' antzezlanak ikusi ahal izango da Kultur Trukearen barruan.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak antolatutako Kultur Trukea Hamabostaldia buktu da.

Hilaren 12an hasi ziren Saharako Tichla eta Ekuadorreko Ibarra herriekin Ibarrek duen senidetzea dela-eta antolatutako kultur ekitaldiak eta igandean amaituko dira. Bi aste hauetan zehar hitzaldiak, dokumentalak, filmak eta areto-futboleko txapelketa izan dituzte, besteak beste.

Gaur, ordea, antzerkiaren txanda izango da. 17:30ean hasiko da Kultur Etxean eta familiarteko ikuskizuna izango da. Vuela Bonita Korporation taldearen *Babel*

Mundua lanak interkulturaltasuna bultzatu nahi du. Mundu berezia ikus daiteke bertan; kultura bakoitzak bere garrantzia du eta kultura guztiak errespetatzen dira.

Lanerako tresna izan nahi du antzezlanak, etorkinen arazoarekin sentsibilizatzeko eta heziketan interkulturaltasuna lantzeko.

Pandora neskatila

Pandora izeneko neskatila da antzezlaneko protagonista. Pandora uharte batean bizi da bere laguna den saia batekin. Uharteko jabea Jenny buruzagi anderea da eta ez die bertatik ateratzen uzten.

Bikoteak, hala ere, azkenean alde egitea lortzen du eta munduan zehar ibiltzea joaten dira osaba Mattek bidalitako gutunek bultzaturik. Bisitatzen duten herrialde bakoitzean hitz magiko bat bilduko dute. Hitz horiek oso baliagarriak izango zaizkie bidaiaren bukaeran.



Kultura anitz uztartzen ditu lanak. HITZA

Sonia Villamor, Nagore Hernandez, Nerea Ibarluzea, Jose Angel Escobar eta Guillermo Camacho dira antzeleak eta zuzendaritzak, gainera, emakumeen esku dago; zuzendaria eta gidoiaren sortzailea Nagore Hernandez da eta aktoreen zuzendariak, aldiz, Sonia Villamor eta Hernaez bera.

Obra berez euskaraz idatzita dago, nahiz eta tartean arabiera, errumaniera eta beste hizkuntza batzuk ere entzuten diren.

Hornidura hobetzeko ur tanga berriaren proiektua onartu dute

Ibarra » Lanak 2009. urteko udaberrian hasiko direla eta 2.029.915 euroko aurrekontua izango dutela esan du Udalak.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren eskarri, herria urez hornitzeko tanga berriaren proiektua onartu du, proiektua bizilagunen onurarako izango dela erdietsi duelarik.

Era berean, Gipuzkoako Foru

Aldundiak aho batez erabaki du Jaurilaritzari lanak presakotzat jotzeko eskaera. Aurrekontua 2.029.915 eurokoa izango da. Udal ordezkariek esan dutenez, lanak, exekuzio proiektua eta lizitazio izapidea onartu ondoren hasiko dira, 2009ko udaberrian, eta 12 hilabetetan burutu beharko dira.

Ur hornidura hobetu

Helburuari dagokionez, proiektua Ibarrako ur hornidura hobetzeko dela azpimarratu nahi izan dute eta etorkizuneko beharren erantzuna bermatzeko ere baliagarria izango dela. Jarduketara horrekin 4.000 m³ko tanga bat jarriko da

egungo 1.750 m³ko oinarri ordez, egungo gaitasuna hirukoitzuko delarik.

Azpiegitura berria egun dagoenetik gertu eraikiko da eta guneko hornidura beharrak asetuko ditu. Ibiur presarekin lotuta egongo da San Blaseko ponpaketaren bidez, bai eta Ibarra eta Belauntzako egungo banaketa sarearekin ere.

Ibarrako ur-biltegi berriko urarekin hornituko da Belauntzako, bulkada bidez, desnibelari aurre egiteko, eta 3.226 metroko hodi bat erabiliko da horretarako. Ibilbidea Leaburuko ur-biltegitik gertu ere igaroko da, gerora Leaburu eta Gaztelu ere hornitu nahi baitira.

G Gutunak

Ateak itxita dauzkagu Ibarrako Udalean

Ibarrako Hautetsi Independentisten udal taldeak legealdi hasieran udaleko batzordeetan parte hartuko zuela jakinarazi zion herriari.

Batzordeetan parte hartu bai, baina ez udal antidemokratikoarekin elkarlanean aritzeko, arlo guztien inguruko informazioa izan, gure ezadostasunak azaldu eta gai guztiak herritarrekin landu ahal izatera mugatu genuen geure parte-hartzea.

Ibarrako EAJ, EA, IU eta PSO-Ek Ibartarron erabakiari muzin egin eta herriko lehen indarra udal-letik kanpo utzi ondoren hartu genuen erabaki hura. Urte eta erdi

igaratu ondoren erabaki zuzena hartu genuela deritzogu, Udalak hartu dituen hainbat erabakiren aurrean berme bat izan baita gu hor egotea gaiak gardenki herritarreko orduan (haurrekola, presoen senideen diru laguntzak eta abar).

Azken hilabeteetan udalak Hautetsi Independentistak batzordeetan egotea arriskutzat hartu du nonbait. Herritar guztiok irekiak zaizkigun batzordeak egiteari utzi eta ia gai guztiak Gobernu Batzordean lantzea pasa dira; azken honetan atekaitxiak ditugu denok, izan Hautetsi Independentista izan herritarra. Egiten dituzten batzorde gutxiak eta udalbatzak eragozte egiten hasi dira, denon parte-hartzea erabat mugatuz.

Udala omen da herritarrongatik gertuen dagoen instituzioa, bere jardunak gardena eta parte-hartzailea izan behar omen du herriaren kudeaketan herritarrok parte hartzeko bideak eta erraztasunak jarri. Ibarren, ordea, udal antidemokratikoa osatzeaz gain garden-tasun eta parte-hartze eza bultzatzen ari dira lotsagabeki: hautetsiez gain herritarrei ere informazio eta parte-hartze eskubidea ukatu diote.

Zer dute ezkatatzeko? Herriak hartzen dituzten inguruko informazioa izatearen beldur al dira? Zeinen interesak kudeatzen dituzte? Azalpenak behar ditugu.

Oihana Lopetegui, Marijo Ruiz eta Hanot Karrera. Ibarra.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzeko bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

Jarduna

administrazio zerbitzuak

• KONTABILITATEA

• ZERGAK

• NOMINAK

• KOBRANTZAK

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net



Gaur euskara, bihar ekonomia

TOLOSA ■ Ezker abertzaleak antolatutako hitzaldi sortako lehena atzo eskaini zuen Inaxio Agirrek. *Euskal Herri euskalduna* zen hitzaldiaren gaia. Azaroaren 26ean, asteaz-

kenean, Nekane Jurado ekonomiarik bigarrena eskainiko du, 20:00etan Tolosako Kultur Etxean. *Nor gelditzen da nire diruarekin? Kapitalismoaren gezurra* aztergai. A. IMAZ



Idoia Sanchez eta txikienak

ALTZO ■ Idoia Sanchez ipuin kontalaria egon zen atzo arratsaldean Altzoko Liburutegian. Aulki bat lagun zuela, kontaketari ekin zion Idoia Sanchezek. Aurrean, zoruaren gaine-

an, adin desberdinetako haurrak adi-adi eduki zituen. Atzerago berriz gurasoak bildu ziren, ia denak emakumeak, haur txikienak besoetan zituztela. A. IMAZ

Bi eskualdeetako AAMk «erabaki politikoak» eta «isiltasunak» salatu ditu

Politika ■ Hainbat atxilotuk, Irati Mujikak barne, torturak salatu dituzte; AAMk irakurketa plazaratu du.

ASIER IMAZ

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azken hilabeteetan torturak salatu dituzten herritarren zerrenda publiko egin du. Hauen artean, Irati Mujika amezketarra aurkitzen da.

Mujikaren salaketa

Espainiako Polizia Nazionalak Iruñean atxilotu zuen Irati Mujika azaroaren 10ean, bi kiderekin batera. Segiko kide izatea leporatzen zien Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Grande Marlas-ka epaileak. Bost eguneko inkomunikazioaren ondoren, Mujikak torturak salatu zituen: «Poltsa, ari-



Amezketak elkarretaratzeak egin ziren Mujikaren atxiloteta salatzeke. A. IMAZ

keta fisikoak, mehatxu sexistak, burdinbatsatzeko mehatxuak...».

AAMren irakurketa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak tortura salaketa hauen inguruko irakurketa plazaratu du. «Tortura-

ren erabilera sistematikoa» hiru helbururekin erabiltzen dutela aipatu du: «Alde batetik informazio politikoa lortzen dute torturaren bidez; bestalde, atxilotuen autokulpazioak lortzen dituzte sarri, eta beldurra zabaltzen dute herritarren artean».

AAMren esanetan, «torturaren erabilera erabaki politikoa da». Politikarien artean, PSOE eta Euskal Herriko erakunde nagusiak aipatu ditu: «PSOEn gobernua da tortura erabiltzea erabaki duena, atxilotuak inkomunikatuz eta torturazaleei argi berdea emanez. Eta torturaren erabilera posible egiten du euskal herriko erakunde politiko nagusiek errealitate honen aurrean mantentzen duten isiltasunak».

ETBren jarrera

AAMk «tortura kasuen aurrean» euskal telebista publikoaren «jarrera salagarria» dela aipatu du: «Tortura salaketak isiltzen dituzte eta inkomunikazio egoera ezkatzen dute. Bitartean, Rubalcabaren bertsioak behin eta berriz errepikatzen dituzte eta atxilotuei torturapean ateratako informazioak erabiltzen dituzte beraien albiste-gietan».

Leitzako pilotariak gaur jarriko dituzte takoak eskuetan etzi kentzeko

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako ikasleek partidak jokatuko dituzte asteburu honetan. Nafar Jokoean, Burlata eta Lizarrako txapelketetan eta DV Txapelketan ariko dira pilotariak.

Amazabalen gaur eta bihar

Leitzako pilotalekuan Nafar Jokoen partidak jokatuko dira gaur 17:00etatik aurrera. Biharko jardunaldia 09:30ean hasiko da Amazabalen.

Paleta Gomak partida Lizarran jokatuko dute gaur Agirre eta Aris-torenak, 20:00etan.

Azkenik, Diario Vasco Txapelketaren baitan, gaur jokatuko dute Amazabalen Jaunarena-Albisuk Ansotegi-Arratibelen aurka. Etor-kizun edo promesa mailako partida hau 19:30ean hasiko da.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...





15°
10°

GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari 

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Baliarrain.** Kultur Gelan 20:00etan, *Herri kirolen eta herri kirolarien beharrak eta gabeziak* mahai-ingurua Aimar Irigoien, Aitor Esnaola, Lourdes Intxausti, Iñaki Azurmendi, Xabier Urresti eta Arkaitz Arteaga eta Xiba elkarteko ordezkari batekin.

Musika

■ **Ikaztegieta.** *Ikaztegieta Kantuz* Ostatuan 21:30ean: Clara Urteaga, Irati Sorondo eta Garazi Egiguren.
■ **Tolosa.** Fiachras eta Mahaster river taldeen kontzertua Bonbereanean 22:30ean.

Azokak

■ **Tolosa.** Artisautza feria San Frantziskon: Napalur artisau taldearen 20 postu egongo dira.
■ **Tolosa.** Liburua azoka San Frantzisko pasealekuan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Zortzigarrenez, Sellaren jaitsiera

TOLOSA ● Aski ezaguna da Sella ibaia Carlos Peña abenturazale tolosarrentzat. Garai hau gerturatze-arekin batera ibai honen jaitsiera egiten saiatzen da; aurtengoan zortzigarren aldiz saiatuko da. Bihar izan-

go du hitzordua, eta 19 kilometroko ibilbidea burutu beharko du igerian, Arriondasko zubitik Ribadesellaraino (Asturias). Etsairik gogorrenak uraren tenperatura eta eguraldia bera izango dira Peñarentzat. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Eneko Otamendi Telletxea (Abaltzisketa). Atzo 7 urte. Gure etxeke bihurriari eta muxu asko.



Urte askoan!

Haritz Larrañaga (Irura). Gaur 6 urte. Zorionak xake-jokalari. Ondo pasa zure urtebetetze egunean.

txokoa **h**

Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren Asteak
aurten argitaraturiko

Japoniako animazio zinema izeneko

30 liburu

zozketan,
deitu eta eskuratu!



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**

Gaitzuzun! Eskuratu Tolosaldeko eta Leitzaaldeko 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak. Liburuak 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak. Liburuak 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak.

<p>AZAROAK 28, OSTIRALA</p> <p>Gaitzuzun! Eskuratu Tolosaldeko eta Leitzaaldeko 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak. Liburuak 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak.</p>	<p>ABENDUAK 1, ASTELEHENA</p> <p>Gaitzuzun! Eskuratu Tolosaldeko eta Leitzaaldeko 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak. Liburuak 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak.</p>	<p>ABENDUAK 2, ASTEARTEA</p> <p>Gaitzuzun! Eskuratu Tolosaldeko eta Leitzaaldeko 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak. Liburuak 1936ko Gerrako Oritzapenak liburuak.</p>
---	---	--

1936KO GERRAKO ORITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI   **hitza** 